

EDITORIALA

35 orduak lanaldia mantendu beharra dago

Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi egin du EAEko administrazioan 35 orduko astea berrezarri zuten Dekretuaren baliogabetzea. Denboran atzera eginda, gogoan izan beharra dago Urkulluren gobernuak 35 ordu buruz 2016an emandako dekretua 2010eko mahai orokorreko akordioa betetzea besterik ez zela, euskal administrazioko langileen lanaldiari buruz.

ELAk orduan ere adierazi zuen Estatuko abokatutzak Eusko Jaur-laritzaren Dekretua errekurritzeko hartu zuen erabakia euskal autogobernuaren aurkako eraso larria zela, berriro agerian uzten zuena Estatuaren inboluzio-agenda, hala arlo sozialean, nola autogobernuaren aurka. Erabaki honek alde bikoitasunaren mugak nabarmen uzten ditu. Zertan da alde bikoitasuna gure langile publikoen lanaldia ere erabaki ezin badugu? Euskal administrazioak Madrilen hartutako erabakiak betearazten dituzten luzapen huts bihurtzen dira horrela.

Estatuak Dekretuaren aurka jo zuenean esan genuen erabakitako ekinbide juridikoak ez zirela nahikoak, eta oso ibilbide laburra izango zutela; hau ere frogatuta geratu da. Horregatik ELAk exijitzen dio Urkulluren gobernuari eman dezala 35 orduak mantentzeko hitza. Izan ere, Jaur-laritzak lanaldia luzatzea onartzen badu, euskal autogobernuaren kontrako eraso larria izateaz gainera milaka lanpostu galduko lirake euskal administrazioan: azkenekoz lanaldia luzatu zenean 1.500dik gora lanpostu suntsitu ziren, soilik Osakidetzan.

ELAk orain arte bezala 35 orduko lanaldia euskal arlo publiko guztian mantentzearen alde egingo du, enplegua sortzeko eta zerbitzu publikoaren kalitatea nahiz bere langileen bizi-baldintzak hobetzeko bide gisa.

Dagoeneko zortzi langile hil dira 2018. urtea hasi zenetik Hego Euskal Herrian hildako langileak

PREKARIETATEAK HILTZEN JARRAITZEN DU

8 hildako 32 egunetan. Bestesla esanda, lau egunero hildako bat. Hori da lan istripuen errealitatea Hego Euskal Herrian: 2018. urtea hasi zenetik 8 behargin hil da gurean lanean. Beldurtzeko moduko datuak. Iragan astea bereziki larria izan zen. Urtarrilaren 29an protesta ekintza egin zen Bermeoko portuan, egun batzuk lehenago itsasoan gertatutako lan istripu hilgarria salatzeko. Otsailaren lehenean, berriz, lau langile hil ziren.

Lehendabizi, goizaldean bi langile hil ziren N-240 errepidean Galdakao parean izandako istripuan; hildakoak aurrez-aurre talka egin duten kamioio eta autobuseko gidariak ziren (31 eta 41 urte zituzten). Autobusa Bizkaibusekoa zen (PESA Lur enpresakoa), eta kamioia, berriz, Kantabriako enpresa batekoa. Arratsaldean, berriz, 32 eta 33 urtetako bi langile hil ziren Loiun. Bi lagun hauek atsedean hartzen ari ziren lanean furgonetan, eta intoxikatu egin ziren berogailuak isuritako gasekin.

PREKARIETATEAK HIL EGITEN DU

Lan osasun arduradun Leire Herediak azpimarratzen duenez, prekarietatea dago lan ezbehar hilgarri hauen atzean. "Bermeon egindako bilkuran arrantza sektorean dagoen prekarietatea salatu genuen: Lan Arriskuen Prebentzioarako Legea enpresa askotan urratu egiten da, baina sektore honetan prebentzio aldetik utzikeria are handiagoa izan ohi da, Administrazioak hainbat kanpaina egiten saiatu diren arren. Bestalde, nabarmendu beharra dago enpresak gertakariei buruz ez duela bat ere gardentasunik izan; istripuaren inguruan ez dago informazio argirik".

Urtea hasi zenetik zortzi dira lan-ezbeharren ondorioz hildako langileak; horietako lau, karga edo bidaiariak zermatzat-



ten garraiolariak. Leire Herediak salatzen duenez, datu honek agerian uzten du sektore honetan dagoen prekarietatea. "Lan-eritmo altuak ezartzen direnez, beharginek lanaldia luzatu eta abiadura handia hartu behar izaten dute; bestalde, ekipoen mantentze lanak ere ez dira behar bezala egiten. Argi utzi nahi dugu honelako ezbeharrek lan istripuak direla, ez zirkulaziokoak, zenbaitetan hala definituagatik ere".

Azkenik, Loiun hildako bi langileak azpikontrataturako enpresa batentzat lan egiten zuten. "Azpi-kontratazioaren arazo larria hor dago; lan istripuen kopuru oso handi batean beharginak azpikontrata batentzat aritzen dira lanean".

"La precariedad sigue matando. Este 2018 ya han muerto 8 trabajadoras en accidente laboral"

LOS TRIBUNALES PARALIZAN LA PRIVATIZACIÓN DE SERVICIOS EN EL HOSPITAL DE URDULIZ

El Tribunal Superior de Justicia ha ratificado la paralización de la privatización de servicios en el Hospital de Urduliz. Esther Saavedra, responsable de ELA en Osakidetza, considera que estamos ante una buena noticia, y recalca que Osakidetza debe ofrecer un servicio 100% público, de calidad, con el personal necesario y con los servicios que la ciudadanía exige.

"Osakidetza ha tenido que dar marcha atrás en su intento de privatizar los servicios de lavandería, cocina y limpieza, que han pasado a ser desem-

peñados por personal propio. Pero no ha sido por decisión propia; se ha visto obligada debido a las movilizaciones promovidas por ELA y secundadas también por otros sindicatos, así como por el devenir de los procedimientos judiciales abiertos".

En este contexto, Saavedra denuncia que Osakidetza ha seguido y sigue impulsando la privatización. "Los más afectados son servicios tan importantes como limpieza, cocinas, esterilización y mantenimiento, pero no podemos olvidar que también están afecta-

dos atención a domicilio, salud mental, ambulancias... Está demostrado que no es más barato y que la calidad es menor. Seguiremos luchando para que ningún nuevo centro tenga ningún servicio privatizado".



#EmanBostekoak
Garaipenari!

Otsailaren 28ko deialdiak hiru helburu ditu: zerbitzu publikoak garatzea, enplegu publikoaren alde egitea eta negoziazio kolektiboaren eskubidea berreskuratzea

LANUZTEAK UDAL ETA FORU ADMINISTRAZIOETAN



ELA y LAB han convocado el 28 de febrero una jornada de paro en la Administración Foral y Local de la CAPV para impulsar los servicios públicos, defender el empleo público y recuperar el derecho a la negociación colectiva

ELA eta LAB sindikatuek lanuzte eta mobilizazio eguna deitu dute otsailaren 28an Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta foru administrazioetan; bi sindikatu hauek langileen ordezkartzaren %80a dute sektorean. ELAren ordezkari Ekaitz Oiangurennek azpimarratzen duenez, hiru dira deialdiaren helburuak.

“Lehena zerbitzu publikoak garatzea da. Ematen ditugun zerbitzu publikoak defendatu eta garatu, pribatizazioak geldituz. Pribatizaturiko zerbitzuetan langileen lan baldintzak duindu eta klausula sozialak landu. Bigarrenik enpleguaren aldeko aldarri argia egin nahi dugu. Suntsitutako enplegua berreskuratu eta behin-behinekotasun tasak %6ra jaitsi beharra dago, akordioak betez. Horretarako lanpostuak egonkortu eta sortu behar dira. Hau bete ahal izateko langile batzordeen gehiengoarekin adostutako Lan Eskaintza Publikoak deitu behar dira”.

“Azkenik, negoziazio kolektiboaren eskubidea berreskuratu beharra dago, galdutako eskubideak eta eros-ahalmena berreskuratuz”.

Lanuzteak lau ordutakoak izango dira: 11etatik 15ak arte, goizeko txandan; eta 15etatik 19ak arte, arratsaldekoan. Egun horretan bertan mobilizazioak egingen dira hiru hiriburuetan eta zenbait eskualdetako buruetan.



LAS AMENAZAS DEL ACUERDO DE LIBRE COMERCIO UE-MERCOSUR

A través del acuerdo ambas partes buscan maximizar el acceso al mercado y aumentar sus exportaciones. Por un lado, la UE se focaliza en exportar servicios financieros y posibilitar el acceso al mercado a las empresas de energía, maquinaria, automóviles, componentes de motor y demás productos industriales, además de alimentos con alto valor agregado (chocolates, vinos, productos con denominación de origen, etc.). Asimismo, quiere facilitar que las empresas europeas puedan ser incluidas en las licitaciones y compras públicas a nivel local. A cambio, la UE ofrece mayor acceso a su mercado a ciertos productos, como por ejemplo la carne, los cereales, el azúcar y el etanol para biocombustibles.

ALGUNAS DE LAS CONSECUENCIAS DEL TRATADO

El acuerdo de libre comercio, y el consiguiente aumento de los intercambios entre ambas regiones, tendría un gran impacto económico, social y ambiental a ambos lados del Atlántico.

La relación comercial UE-Mercosur es del tipo norte-sur, es decir: los sectores más dinámicos para la UE en el comercio con los países del Mercosur serían los de mayor contenido tecnológico e intensivos en capital (productos manufacturados con alto valor agregado), mientras que para los países del Mercosur, los sectores más dinámicos serían los intensivos en trabajo y materias primas (productos con bajo grado de elaboración). Por ello, es de esperar que este acuerdo ahonde las asimetrías y el desequilibrio en las relaciones comerciales y económicas del Mercosur con la UE.

El acuerdo tendría un grave impacto sobre el empleo en ambas regiones. En Europa el sector agrícola y ganadero se vería perjudicado, ya que las pequeñas explotaciones peligrarían ante la competencia monopolística de las grandes empresas del agrobusiness. En el Mercosur sería el empleo en el sector industrial el principal perjudicado.

A nivel medioambiental, Greenpeace alerta sobre el impacto del desarrollo ganadero intensivo y el aumento de cultivos como el de la soja en la deforestación de ecosistemas sensibles de América del Sur como la Amazonía, el Cerrado en Brasil y el Chaco. A esto se le unen los peligros para las comunidades campesinas y de pueblos originarios que sufren presiones sobre sus tierras. Las importaciones masivas de carne tendrían también un impacto en los ecosistemas de la UE, donde numerosos hábitats rurales conviven en equilibrio con un tipo de ganadería tradicional y sostenible que podría desaparecer.

En materia sanitaria, entidades no gubernamentales y especialistas en salud pública temen que el acuerdo lesione el acceso a los medicamentos en los países del Mercosur, ya que la UE reclama el aumento de las patentes de exclusividad para las farmacéuticas multinacionales, lo que limitaría la provisión de genéricos y encarecería el valor de los medicamentos en la región de manera exponencial.

SIN INFORMACIÓN, NI TRANSPARENCIA, NI DEBATE DEMOCRÁTICO: RECHAZO AL TLC UE-MERCOSUR

A pesar de las consecuencias que provocaría el acuerdo en la ciudadanía de la UE y de los países del Mercosur los gobiernos han impedido el conocimiento público de su impacto económico y social, y actúan con absoluta permeabilidad al lobby de los grandes grupos económicos transnacionales.

Una vez más el objetivo es la desregulación del mercado y la eliminación de normas de protección social, protección ambiental y protección laboral. Hay que poner fin a los acuerdos de libre comercio, con los que solo ganan las empresas y perdemos las personas.

Eider Azcunaga - ELA Internacional



Un acuerdo que pretende atacar los derechos sociales, laborales, y medioambientales, y que ahondaría los desequilibrios, a fin de que las grandes empresas sigan acumulando beneficios.

El pasado mes de diciembre se rompió el cerco de secretismo que envuelve la negociación del tratado de libre comercio (TLC) que llevan a cabo la Unión Europea (UE) y los países del Mercosur (Argentina, Brasil, Paraguay y Uruguay, sin participación de Venezuela, al haber sido suspendida del Mercosur pese a que el acuerdo podría tener enorme impacto en su economía y sociedad). Greenpeace Países Bajos filtró documentos, que suman 171 páginas, con parte de las conversaciones secretas mantenidas para alcanzar un acuerdo de liberalización comercial y financiera.

A pesar de las grandes repercusiones para el medio ambiente, la salud pública, los derechos sociales y las normas laborales que tienen este tipo de acuerdos comerciales, las negociaciones se están llevando a cabo, al igual que pasó con el TTIP, a puerta cerrada, con una participación pública simbólica. Así, la ciudadanía del Mercosur y de la UE, las grandes afectadas por el acuerdo, han conocido lo que están negociando sus gobiernos por medio de filtraciones.

PWC: SINDIKALISMOA JOMUGAN



“Mapa sindikala aldatu ezean (...) Euskadik lehiakortasuna galduko du”. Horixe esaten da PwC enpresa-aholkularitzaren txosten batean. Hain zuzen txostena aurkeztu zen ekitaldian izan zen Tapia sailburua, eta bera ere helburu harekin bat dator. Ez baita lehenengo aldiz gertatu bere **governua**, oreka mantentzen saiatu ordez, patronalaren posiziorik erreakzionarioekin identifikatzea. Eskuin ekonomikoak, bere boterea indartzen duten lan erreformak lortuta, hurrengo helburua finkatu du: bere asmoei aurre egiten dien sindikalismoa suntsitzea.

Sindikalismoak men egiten ez badu makurrarazi egin behar da. Gure ekintza kolektiboa alferrekoa izatea nahi dute, “jendea garatu eta sindikatua alde batera utz dezan”. Garai berriotan enpresek gure jendearekin nahi dutena egiteko aukera izan behar dute. Aurrean soilik banakoak nahi dituzte, eta Asia ez dute kasualitatez eredu gisa hartzen... han ez baitago sindikaturik.

ELAren ustez oso larria da gobernu demokratiko batek halako helburuak bere egitea. Demokratikotik ezer ez duen xede baten alde egitea –sindikatu paretik kentzea– patronalaren aldeko eskuhartze onartezin gisa ulertu beharko litzateke. Jaurlaritzak ez du itxura ere zaintzen. Gogorra da patronalak bere asmoa horrela adieraztea; baina are gogorragoa horri babesa emateko ekitaldian Urkulluren gobernuko bi sailburuk eta EAJren liderrek parte hartzea.

Zoritxarrez, Jaurlaritzak sindikalismoaren arloan orekaren zentzua galdua dauka aspaldian.

Eta hori behin eta berriz frogatu du: babesa eman zionean negoziazio kolektiboan gutxiengoak langileek hautatutako gehiengo usurpatzerai; garrantzia kendu zionean Confedebaskek “fiskalitateaz hitz egiten zutelako” ELA eta LAB legez kanpo jartzeko proposamenari. Edota Tapia sailburuak esan zuenean gurean “ordezkaritza sindikala aldatu beharra” zegoela. Jaurlaritzak posizio hori finkatzeko bi arrazoi nagusi ditu: batetik, Margaret Thatcherren moduan sindikaturik nahi ez duen eskuin ideologikoaren ordezkari delako. Bestetik, uste duelako horrek ez diola kostu politikorik eragingo. Munduan zehar horren aldeko haizea dabil. Bitxia da: eskuin politikoa arazoak ez dira lan erreformak edo prekarietatea; aitzitik, sindikatuok egiten diogu enbarazu, eta patronalaren alde jokatzeko prest dago gu defentsarik gabe uzte aldera. Eurek gidatu nahi duten gizartean guztiok beldurraren diziplinari men egin behar diogu. Kontuz, ibilbide hori arriskuz beteta baitago.

Hala da; PwCk diskurtso ideologikoa egiten du eskuinak setaz errepikatzen duenean ideologiak amaitu direla. Esaten dute “konfrontazio estrategia Euskadin lan egiten duten pertsonen aurka” doala... Lotsarik ez dute! Galdetu, bestela, Bizkaiko zahar-etxeetan lanean diharduten emakumei: 370 eguneko greba egin behar izan dute hilean 1.200 euro irabazteko. Haien ondoan egon zen sindikatua, babesa eta elkartasuna eskainiz. Eta horixe da botereek onartzen ez dutena.

Nori zuzentzen dizkio PwCk bere esijentziak? ELAri ez. Badakite ez dugula baztertuko kostata lortu dugun autonomia sindikala. Zein delitu egin dugu horrela zigor gaitzaten? Akaso asmatu egin dugu hainbeste jende pairatzen duen lan prekarietatea eta bazterketa? Gure delitua honakoa da: langileei perspektiba, autoestima, antolakuntza eta borrokarako gaitasuna emateko ari gara lanean. Ez dugu esperantzarik galdu. Eta horrek ernegatu egiten ditu.

Jakingarria da Javier Urizarbarrena, bere garaian EAJrekin Bizkaiko Ogasun diputatua izan zena, gaur PwCren zuzendaritzan dagoela. Ez dago esan beharrik Urizarbarrena gaur noren alde ari den lanean, baina jakin nahiko genuke Ogasunaren arduradun zenean norentzat ziharduen. Bera PwCra joan zen, baina Aldundian oinordeko duinak izan ditu enpresei zergak jaisten jarraitzeko. Hau ere Euskal Herrian hain ugariak diren ate-erroten adibide dugu.

Eskuina harrotu egiten da ezker lausotzen denean. Izan ere, egungo ezkerak ez baitu ildo argirik jarraitzen. Gaur Europan ezker politikoa herrialde batzutan bere boterea berreskuratzen badu da ez diolako izkin egiten eskuinaren tala ideologikoari. Eusko Jaurlaritzak erabaki du patronalari laguntza emango diola mugimendu sindikala ahultze aldera; erabaki hau ikusirik ezker politikoa planto egin beharko luke. Haatik, euskal gizartean omen dagoen ustezko *ildo zentral* bat irudikatzen dute, eta hor kokatzen dituzte hain zuzen sindikalismoa suntsitu nahi duten indarrak ere.

Eraso egiten digute gizarte-eredu prekarioa ezarri eta, gainera, patronalari babesa ematen diote gu paretik kentzeko. Hori egiten dutenak ez dira guk sinesten dugun prozesu horretako partaide. ELAK ez du horretan sinesten. Eta ez da peccata minuta, gure erabakitze eskubidea, euskal langileona, horrekin lotuta baitago.

Euskal eremu instituzionaleko *ildo zentral* zoritxarrez neoliberal da, eta premiazkoa da eskuinaren debate ideologikoari ekitea. Ken Loach zinema zuzendariak esan duen bezala, “lidergoa eta borondatea behar dira programa alternatibo bat definitzeko”. Izan ere, bai baitzegoen beste alternatiba bat, sistemaren aholkua jarraitzea, baina hori Europa guztian nabarmen geratu da: Sistemak ezkerri aldegitzen dio “hautsi dezala mugimendu sindikalaren lotura eta normaltze aldera ildo soilik instituzionalerako ibilbidea burutu dezala”. Horixe egin zuen Tony Blairrek. Bide horrek ezker porrotera eraman du, sindikalismorik gabeko ezker maingua baitago, ezker politikoa alternatiborik gabeko sindikalismoa bezalaxe.

ELAK argi dauka: botere sindikala eraiki behar da. Hau da guk sinesten dugun subiranismo sozialeko ekarpena, geure-geurea. Botere sindikala lortu ala ez, hor dago prekarietatea etsita jasatearen edota burua harro altxatzearen arteko aldea. Emilio Botinen ordezkoa bere alaba izan da, oinordetzaz. Kapitala, diruaren boterea, oinordetzaz eskualdatzen baita, baina botere sindikala ez. Sindikalismoa egunez egun eraiki behar da langile-klasean zilegitasuna irabaztean. Etorkizuna ez digute bermatuko legeak, ezta botere ekonomikoarekin hain otzan agertzen diren gobernu hauek ere. Sistemak PwC eta honen kideko enpresak erabiltzen ditu pentsamolde neoliberal hedatzeko. Guk egin beharrekoa geure gain dago. PwC gaia bat esan nahi diogu: harro gaude egin behar sozial hau egiten dugulako, eta horri eutsiko diogu aurrerantzean ere.

Adolfo Muñoz, Txiki, ELAren idazkari nagusia

ÁMPLIO SEGUIMIENTO A LA HUELGA EN EL SECTOR DE OFICINAS Y DESPACHOS DE BIZKAIA



La huelga convocada por ELA, LAB, ESK, CGT y CNT en el sector de Oficinas y Despachos de Bizkaia tuvo con

un amplio seguimiento. La mayoría de las y los 23.000 trabajadores del sector secundaron la jornada de paro –70%–, y la manifestación que al mediodía recorrió las principales calles de Bilbao fue masiva –4.000 personas–. Una convocatoria de la que Agus Pérez, responsable de ELA en el sector, hace una lectura muy positiva. “Estamos hartos y no pararemos hasta conseguir un convenio que dignifique nuestras condiciones laborales”.

Agus Pérez critica duramente la actitud de la patronal CEBEK, a la que acusa de, aprovechándose de la refor-

ma laboral, querer empeorar los derechos laborales utilizando para ello como chantaje los convenios estatales. “Lo tenemos claro, aquí trabajamos y aquí queremos negociar. También tenemos claro que no vamos a permitir que CEBEK juegue con nuestro salario y antigüedad, las únicas herramientas que hacen que nuestros salarios se actualicen”.

Con la jornada de huelga del 1 de febrero finalizó una primera tanda de movilizaciones que tendrá continuación próximamente. “Si CEBEK cree que con esta huelga todo acaba, se

equivoca y mucho. Este día fue el pistoletazo de salida de las movilizaciones que nos van a llevar a conseguir un convenio digno”.

“La huelga no fue solamente para recuperar el convenio de 2012. Bastante doloroso es tener que ir a una huelga para recuperar un convenio de hace 5 años. La huelga fue para decir que no vamos a aceptar ese chantaje, que no vamos a dar cobertura a un convenio cuyo único objetivo es seguir pisoteando nuestros derechos, que no vamos a permitir que nos traten como a basura...”.

LABURREAN / BREVES



• Iragan urtean diru gehiago bildu zen, baina era bidegabean

Hego Euskal Herriko ogasunek 2017an bildu zuten diru kopuruaren inguruko datuak eman berri dituzte. ELAko azterketa bulegoko kide Iñaki Zabaletak azpimarratzen duenez, diru-bilketa handitu den arren era bidegabean egin du.

“Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek 2017an 14.473,9 milioi euro bildu zituzten, 2016an baino %11,8 gehiago, sekula bildu den kopururik handiena da, 2007an bildutakoa baino handiagoa. Nafarroan, berriz, iaz 3.682,6 milioi euro bildu ziren, 2016an baino %13,3 gehiago; kasu honetan ere Ogasun arduradunek azaldu dute inoizko kopururik handiena dela, 2007an bildutakoa baino gehiago. Diru-bilketa handitzea berri ona da, nahiz eta oraindik ere asko dagoen egiteko. Izan ere, Hego Euskal Herrian biltzen den diru kopurua Europako batz bes- tekoaren oso atzean dago”.

“Dena den, –azpimarratzen du–, dirua nola biltzen den ere erreparatu beharra dago. Hazkundera lan errenten kontura eman da; enpresek, aldiz, Sozietate- en Zerga bidez duela hamar urte baina askoz gutxia- go ordaintzen dute. Berdintasun ezaren eta pobrezia- ren hazkundera dira Hego Euskal Herrian egin den politika fiskalaren ondorioa. Beharrezkoa da diru-bil- keta gehiago haziko duen eta justizia sozialaren bide- tik joango den erreforma fiskala”.

Iñaki Zabaletak ere uste du arreta jarri behar dela biltzen den diruaren erabilerrari. “EAEren kasuan, haz- kunde hau ez da gastu sozialaren hazkundera bihur- tuko, Urkulluren Gobernuak Rajoyren Gobernuarekin adostutako gastu erregelak zor publikoa ordaintzera behartzen duelako. Hau da, diru-bilketaren hazkunde- tik jasotako milioi bakar bat ere ez da behar sozialak asetzera bideratuko. Nafarroan ere diru-bilketaren hazkundera ez da gastu sozialaren hazkundera bihur- tuko, Madrilgo Gobernuarekin adostutako gastu erre- gelak zor publikoa ordaintzera behartzen baitu”.



• El Gobierno de Navarra sanciona a Sigma Brakes con 20.000 euros por un accidente laboral mortal

La Directora General de Política Económica y Empresarial y Trabajo del Gobierno de Navarra ha impuesto a la empresa Sigma Brakes de Tudela una sanción de 20.000 euros por una infracción grave por el accidente laboral del pasado 7 de septiembre de 2016 en el que falleció un trabajador de 35 años. El informe técnico emitido por el ISPLN sobre las causas que propiciaron el accidente responsabiliza a Sima Brakes por una serie de deficiencias y/o actuaciones incorrectas en materia de prevención de riesgos.

ELA denuncia que pese a la gravedad de un accidente mortal y casi un año y medio después del fatal accidente no ha cambiado nada la política en materia de prevención de riesgos en Sigma Brakes. Sigue habiendo una actitud totalmente irresponsable y reprochable por parte de la dirección debido a su falta de voluntad en dar prioridad a la seguridad y salud de la plantilla.

Si además, pese a la muerte de una persona la sanción es de sólo 20.000 euros, estamos ante un peligroso mensaje a la clase empresarial que puede pensar que sale más barato pagar multas que invertir en prevención y protección de la salud de los trabaja- dores y trabajadoras.

• La plantilla de la Clínica Asunción de Tolosa se moviliza contra la precariedad

Los y las trabajadoras de la Clínica Asunción de Tolosa continúan con las huelgas y movilizaciones para denunciar la falta de personal, la precariedad laboral y el constante aumento de las cargas de traba- jo en estos últimos años. La plantilla ha realizado estas últimas semanas cuatro jornadas de huelga, obligando a la dirección a realizar una nueva oferta. Sin embargo, el Comité de Empresa denuncia que la propuesta sigue siendo claramente insuficiente.

“Llevamos desde el año 2011 sin ningún tipo de subida salarial, nuestra pérdida de poder adquisitivo es cada vez mayor. Nuestra jornada anual está muy lejos de la jornada que tienen las/os trabajadoras/es



de la administración pública y no ha tenido ningún tipo de reducción desde el años 2010. La falta de per- sonal y la irregularidad en su contratación son un hecho, y el aumento de las cargas de trabajo son una constante en estos últimos años. La dirección de la Clínica Asunción ha convertido la salud en negocio y el Departamento de Salud del Gobierno Vasco ha sido cómplice, porque poco o nada les importan las/os tra- bajadoras/es de Inviza y los 65.000 habitantes de Tolosaldea”.

Por todo esto, las y los trabajadores destacan que seguirán con las movilizaciones “hasta que el Gobier- no Vasco y la dirección de La Asunción solucionen de una vez por todas el problema que ellos mismos han creado”.

• Un mes de huelga en el servicio de la OTA de Bilbao

La plantilla de la OTA de Bilbao cumplió el 2 de febrero un mes de huelga indefinida para exigir la readmisión de siete compañeros despedidos y denun- ciar el chantaje de la empresa adjudicataria del servi- cio –la UTE conformada por EYSA y CYCASA– a la hora de negociar el convenio colectivo.

El Comité de Empresa destaca que los siete despi- dos han supuesto la ruptura de la negociación del convenio. “Son despidos buscados y provocados. Aducen presuntas infracciones acaecidas en julio, y que han sido articuladas interesadamente, y con claro ánimo chantajista, en diciembre, tras la sanción de 120.000 euros impuesta por el Ayuntamiento y el blo- queo de la mesa negociadora”.



www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207